

Gueñesko Udala

1. Artikulua.-Xedea

Ordenantza honen xedea araudi bat ezartzea da, hain zuzen ere, Gueñesko udal eremu barruan jarduerak burutzen dituzten udalerriko erakundeek kultura eta kirol aktibitateetarako dirulaguntzak eskatzeko eta jasotzeko prozedura zehazteko.

2. Artikulua.-Aurrekontuko aurreikuspena

Gueñesko Udalak urtero aurrekontuko partida bat ezarriko du dirulaguntzetarako, eta hauen emakida baldintzatuta geratuko da ebazpena hartuko den unean dagoen kredituaren arabera.

3. Artikulua.-Dirulaguntza motak

Udal aurrekontuko baliabideen arabera Udalak dirulaguntzak eman ahal izango dizkie Elkarte, Erakunde, Talde, eta abarrei euren xedeak eta helburuak burutu eta garatzeko, modalitate hauen arabera:

- a) Izaera orokorreko dirulaguntza, izaera anitzeko gastuak ordaintzeko.
- b) Izaera puntualeko dirulaguntza, ekintza zehatzak antolatzeko.
- c) Zaindariaren jaietarako dirulaguntza.
- d) Erromerietarako dirulaguntza.

4. Artikulua.-Irizpide nagusiak

- a) Dirulaguntzak borondate eta balizko izaerakoak izango dira, eta hauek emateak ez dio Udalari inolako beharrik ekartzen, ez du eskubiderik sortzen ez eta etorkizuneko emakidetan aurrekaririk ezartzen ere.
- b) Korporazioak dirulaguntzak ezeztatu edo murriztu ahal izango ditu edozein momentutan, honen aurkako klausula adostu ezean.
- c) Ezin izango da dirulaguntza gehitzeko edo berrikusteko eskatu.
- d) Bere interes bereziagatik zenbait proiekturi dirulaguntza emateko aukera bere iritziz egoki den ehunekoan eta eran Udalak gordetzen du.

5. Artikulua.-Eskabideak

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute honako hauek:

- a) Irabazi asmorik gabeko Erakundeak eta Elkartek, baldin eta udalerrian helbideratuta, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan inskribatuta eta Elkartearen Udala Erregistroan altan emanik badaude.
Salbuespen gisa baldintza hori ez dute bete beharko Udalaren ustez hezkuntza, kultura edo onegintza izaera nabaria duten elkarteek eta erakundeek, ezta Jai Batzordeek ere.
- b) Udalerrian erroldatuta dauden pertsona fisikoek, udalerrian burutuko diren ekimenetarako eta irabazi asmorik gabeko talde baten izenean aritzen direnean.

Edonola ere, dirulaguntza eskatzen denean zerga betebeharretan Gizarte Segurantzako ordainetan egunean daudela eta Gueñesko Udalak aurretik emaniko dirulaguntzak jaso direla egiaztatzen dituzten agiriak eskatuko dira.

6. Artikulua.-Eskaerak aurkezteko epea eta dokumentazioa

1. Eskaeren aurkeztea:

- a) Urteko egitarauak: programa edo jarduera burutu nahi den aurreko urteko azaroan.
- b) Programa jakinak: burutu baino bi hilabete lehenago arte, eskatzaileen iritziz Gueñesko udalarentzat interes berezikoak izan daitezkeen kasuetan izan ezik.

2. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Jarduera bakoitzerako eskari bana, Erakundearen Presidenteak sinatuta, bertan jasota geratuko da dirulaguntza zein jarduera edo egitarautarako eskatzen den, eta honekin batera eskaera sinatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia.
- b) Elkarteen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria, hala balegokio, eta Estatutuen kopia.
- c) Eskatutako dirulaguntza horrekin egingo den jardueraren edo programaren egitarau xehatua, bertan zehaztuta geratuko dira xedeak, partaideak, tokiak, datak eta interesgarritzat har daitezkeen datu guztiak.
- d) Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua, aurrikusitako finantza-baliabideak adierazita (kuotak, emariak, etab.).
- e) Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak luzatutako ziurtagiriak, zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharretan egunean daudela egiaztatzen dutenak.

Udalak uste badu dokumentazioa osatu gabe dagoela, agertutako puntuak ez daudela nahiko argi, edo informazioa ezkutatu edo aldatzen dela, eskaera kanpoan utz daiteke.

7. Artikulua.-Baloratzean erabiliko diren irizpideak

Eskaera aurkezten den urtean Udalerriko eremuan egiten diren kultur jardueretarako dirulaguntza eman daiteke.

Dagokion erakundeak dirulaguntzak ematean edo banatzean kontuan hartuko dituen irizpideak ondoko puntuei begira ezarriko dira:

- a) Taldearen historia: eskaera gauzatu duen arte egindako lana. Jarduera mota honen antolakuntzan duen esperientzia.
 - b) Hiritarrek jarduerarekiko duten interes, sustraitze edo erabilgarritasun maila, ospe maila, aurreko urtean garatutako jarduerengatik hartutako hedapena edo garrantzia.
 - c) Aurreko urtean garatutako jarduerengatik biztanleriaren sektoreengan izaniko eragina.
 - d) Ekonomia gaitasun autonomoa edo beste entitate zein erakunde publiko edo pribatuekiko menpekotasuna.
 - e) Beste entitate zein erakunde publiko edo pribatuekiko lortu dituzten edo lor ditzaketan laguntza ekonomikoak zein dirulaguntzak.
- Finantziario iturri berrien bilaketan eginiko ahaleginak aldeko balozio jasoko du.
- f) Jardueraren zenbatekoa eta aurrekontuaren justifikazioa.

- g) Taldearen edo elkartearen antolakuntza juridikoa, funtzionamendua, bazkide edo taldean parte hartzen duten pertsona kopurua.
- h) Taldearen jarduerarako erabilitako kalitatea eta teknika hobetzeko eginiko ahalegina.
- i) Egingo diren jardueretan euskararen erabilpena, oro har, dirulaguntza eskatzen duen taldeak edo elkarteak euskara bultzatzen duen neurria.
- j) Garatuko den egitarauaren edo jardueraren originaltasuna, jarduera burutzearen ondorioz onura jaso dezaketen pertsonen kopurua, eta bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa.

8. Artikulua.-Onespena

Aurkezten diren eskaerak Alkateak erabakiko ditu, Gobernuko udal batzordearen laguntza izanik, eta eskatzaile bakoitzari idatziz erantzungo zaio onespena hartuko denetik hasita eta 10 eguneko epean.

9. Artikulua.-Dirulaguntzaren justifikazioa

Dirulaguntza jaso duten onuradunek Udalean dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Urteko egitarauak: urriaren 15a baino lehen, edo hala balegokio, eta jarduerak urteko azken hiruhilekoan egiten direnean, dirulaguntza ematen den hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen. Dirulaguntza jaso duten erakundeek Udal honi honako dokumentazio hau bidali beharko diote:
 - Egindako jarduerak azaltzen dituen txostena, lortutako xedeak eta hauei buruzko ebaluazioa adierazita.
 - Diruz lagunduko den xedearen emaitza ekonomikoaren balantzea.
 - Egindako argitalpenaren ale bat, bertan Gueñesko Udala babeslea dela jasota geratu behar da «Gueñesko Udala» inskripzio eta Udalaren logotipoaren bidez.
 - Eskaera egin denean Korporazioaren aurrean aurkeztu ezin izan badira, beste erakunde batzuek dirulaguntzak eman dituztela egiaztatzen duten agiriak.
 - Egindako gastuen jatorrizko fakturak eta hauen fotokopiak, jatorrizkoa interesdunari itzuliko zaizkio udal zerbitzuak baieztatu ondoren. Bakarrik onartuko dira gastu bezala, dirulaguntzaren xedea den jarduera burutzeko egiten direnak.
- b) Egitarau zehatzak: programaturiko ekintza amaitu eta hilabeteko epean Udaletxean aurkeztu beharko dira urteko programetan eskatzen den dokumentazio berdina.
- c) Jaietako egitarauak: jaiak amaitu eta bi hilabeteko epean.

10. Artikulua.-Ordaintzeko era

1. Urteko egitarauak: dirulaguntza jaso duten jarduerak erabakitako zenbatekoaren %100 kobratuko dute, baliabideak eskuragarri diren neurrian.
2. Egitarau zehatzak: erabakitako zenbatekoaren %60 kobratuko dute eskaeraren ebazpena hartzen denean, eta gainontzeko %40 9. artikuluan zehaztutako dokumentazio egiaztagarria aurkeztu ondoren.
3. Jaietako egitarauak: erabakitako zenbatekoaren %60 kobratuko dute eskaeraren ebazpena hartzen denean, eta gainontzeko %40 9. artikuluan zehaztutako dokumentazio egiaztagarria aurkeztu ondoren.

11. Artikulua.-Onuradunen izaera orokorreko betebeharrak

1. Dirulaguntza jaso duten aktibitateak ematen diren urteko abenduaren 31 baino lehen egingo dira, eta 9. artikuluan zehaztutako dokumentazioaren bidez egiaztatu behar dira.
2. Emaniko dirulaguntzen xedea ezin da aldatu.
3. Jarduera baterako dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak, berez Ordenantza hau eta dirulaguntzaren emakida arautzen duten oinarriak ezagutzea eta onartzea dakartza. Ordenantza honetan dauden betebeharrak eta zehapenak betetzen ez badira dirulaguntzak ezezta daitezke.
4. Ezingo zaizkie inolaz ere dirulaguntza berriak eman fondoak justifikatzeko dauzkaten erakundeei, eta hauek galda daitezke, zerga zorraren izaera dutela.
5. Dirulaguntza jaso duten jardueren antolakuntzaren ondorioz sortutako gastuen ardua ez du Udalak hartuko.
6. Dirulaguntza jaso duen erakunde onuradunak beregain hartuko du jarduerak dakarren ekintzaren ardua, aipatu erantzukizuna bermatzen duten poliza egokiak sinatuta.
7. Ordenantza honek aipatzen dituen dirulaguntzak emateak ez du eragingo izaera zibil, laboral, administratibo edo bestelako hitzarmen harremanik Gueñesko Udalaren eta dirulaguntza jaso duen pertsona edo erakunderen artean.

12. Artikulua.-Zehatze erregimena

Gobernu Udal Batzordeak lagunduta, Alkateak ezarriko duen zenbatekoa onuradunek itzuli beharko dute dagokion espedientea izapidetu ondoren, jarraian aipatzen diren kasuetan dirulaguntza osoa izanik:

- a) 9. artikulua aipatzen duen dokumentazioa zehaztutako epean aurkeztu ez denean.
- b) Aurkeztu eta dirulaguntzaz lagundu den proiektuan aurrikusitako jarduerak burutu ez direnean.
- c) Publizitate dokumentazioan Gueñesko Udalaren babesa edo laguntza agertzea agertu ez denean.

13. Artikulua

Ordenantza honen ondorioz sor litezkeen zalantzak interpretatzea eta erabakitzea Alkatetzaren eskudantza izango dira.

Xedapen Gehigarria

Lehenengoa.-Udalaren dirulaguntza jaso nahi duten hiritar izaerako entitateek eta erakundeek Gueñesko Udaleko Kultura eta Kirol Erakundearen Erregistroan, xede honetarako sortu dena, inskribatu beharko dute. Era berean, eskabide orria behar bezala beteta aurkeztu beharko dute, eta honekin batera jarraian aipatzen den dokumentazioa.

- a) Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan Elkartea inskribatuta dagoelako ebazpena.

b) Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroak zigilua jarri eta oniritzia eman ondoren estatutuen kopia.

c) Bere Gobernu Organoen Konposaketa (Zuzendaritza Batzordea), batzordekideen izen-abizenak agertuz, eta Presidentearen edo baimendutako ordezkorearen NANaren fotokopia.

d) Bere bazkideen izenen zerrenda.

Eskabide orria eredu honi jarraituta egingo da:

Gueñesko Udaleko Kultura Eta Kirol Erakundearen Udal Erregistroa

Talde edo erakundearen izena:

Helbidea:

P.K.:

Telefono zenbakia:

Jarduera nagusia:

Bazkideen kuota:

Jardueren jasotzaileak:

Eusko Jaurlaritzako Erregistro Zibileko zenbakia:

IFK:

Eratze data:

Presidentearen tel. zkia.:

Idazkaria: tel. zkia.:

Diruzaina: tel. zkia.:

Batzordekideak:

Udalerriko bazkideen kopurua:

Udalerrikoak ez diren bazkideen kopurua:

Historia:

Beste ezaugarri batzuk:

Bankuko datuak:

Bankua edo Kutxa Sukurtsala Kontrol digitua

Kontu zenbakia:

Data, sinadura eta erakundearen zigilua

Bigarrena.-Jaietako Batzordeek euren osaketa aurkeztu beharko diote Udal honi (Zuzendaritza Batzordea), beren batzordekideen izenak, euren telefono zenbakiak, eta Presidentearen edo baimendutako ordezkariaren NANaren fotokopia agertuz.

Azken Xedapena

Toki Erregimeneko baseak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 legearen 70.2. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Ordenantza hau indarrean jarriko da behin-betikoz onartuta izan ondoren, hau da: bere testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hamabost eguneko epea igarota.